



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko abenduaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko abenduaren zortzian, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, LEKUMBERRY Xantxo
Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie

Deialdiaren eguna : 2021eko abenduaren 3a
Afitxatze eguna : 2021eko abenduaren 3a

3.ERABAKIA HARRERA TELEFONIKO ETA FISIKO ZERBITZUA ELKOR ETA ENTZUMEN URRIKO PERTSONENTZAT. EUSKAL HIRIGUNEAK ESKAINI ZERBITZUAREN ERABILTZE HITZARMENA

Nomenklatura : 9.1

Frantziako Errepublika numerikoaren aldeko 2016ko urriaren 7ko 2016-1321 legeari jarraiki, ahalmen urriko pertsonendako telefono zerbitzuen helgarritasunari buruzko 2017ko maiatzaren 9ko 2017-875 dekretuaren arabera, herriek eta herri elkargoek parez pareko eta telefonozko harrera elkorrei eta entzumen urriko pertsoneri helgarriak izateko gisan egokitu behar dituzte.

Neurri horiek 2020ko urriaren 7tik beharrezkoak ziren 10 000 biztanle baino gehiagoko herrientzat; orain, lurralde-elkargo guzietan dagokie, biztanle kopururik kontuan hartu gabe.

Herrietako eta herriarteko helgarritasunerako batzordeen sareko hautetsiek galdeginik, 2020. urtean, Hirigune Elkargoak bateratze aterabide bat aztertu zuen, kostuen ttipitzeko. Orduan, Eliozen sozietateak saldu Eliozen Connect aterabide teknikoa hautatu zen. Eliozen Connect zerbitzuari esker, erabiltzaile elkorrak eta entzumen urrikoak lurralde elkargoetako langile eta hautetsiekin mintza daitezke, telefonoz ala parez pare, LSF zeinu hizkuntzako, LPC ahozko

hizkuntza osatuko, TTRP mintzoaren aldibereko transkripzioko ala transkripzio automatikoko urruneko interprete plataformaren bidez.

Agiri honi erantsi hitzarmenean, 2022ko urtarrilaren 1.etik goiti ezarriko diren moldeak zehaztuak dira, Euskal Hirigune Elkargoak Uztaritzeko herriari pertsona elkorrendako eta entzumen urrikoendako harrera zerbitzua eskura eman diezaion.

Frantziako Errepublika numerikoaren aldeko 2016ko urriaren 7ko 2016-1321 legea kontuan izanik,

Ahalmen urriko pertsonen telefono-zerbitzuak baliatu ahal izateari buruzko 2017ko maiatzaren 9ko 2017-875 dekretua kontuan izanik,

Herriko kontseiluak, aurkezpenean entzun eta eztabaidatu ondoan, aho batez :

ERABAKI DU dokumentu honi erantsi hitzarmena, Euskal Hirigune Elkargoko pertsona elkor eta entzumen urrikoendako harrera zerbitzua eskura emateari buruzkoa, onartzea;

Auzapezari ala bere ordezkariari gai horri buruzko erabaki ororen hartzeko eta erabaki horien gauzatzeko agiri ororen sinatzeko **BAIMENA EMATEA**.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko abenduaren 8an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/12/21ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/12/21ean.